

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Arrigorriagako Udala

Ayuntamiento de Arrigorriaga

2010



AURKIBIDEA / ÍNDICE

0. LABURDURAK	5
I. SARRERA	7
II. IRITZIA	8
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	8
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia.....	9
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK	11
III.1 Aurrekontua eta kontabilitatea.....	11
III.2 Zerga sarrerak.....	12
III.3 Langileria.....	12
III.4 Diru-laguntzak.....	13
III.5 Kontratazioa.....	13
IV. FINANTZA ANALISIA	16
V. URTEKO KONTUAK	20
V.1 Udala.....	20
V.2 Udal Euskaltegia Erakunde Autonomoa.....	23
ALEGAZIOAK	25
0. ABREVIATURAS	33
I. INTRODUCCIÓN	35
II. OPINIÓN	36
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	36
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales.....	37
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	39
III.1 Presupuesto y contabilidad.....	39
III.2 Ingresos fiscales.....	40
III.3 Personal.....	40
III.4 Subvenciones.....	41
III.5 Contratación.....	41

IV. ANÁLISIS FINANCIERO	44
V. CUENTAS ANUALES	48
V.1 Ayuntamiento.....	48
V.2 Organismo autónomo Euskaltegi Municipal	51
ANEXOS	53
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado y legislación que le resulta de aplicación .	53
A.2 Presupuesto y sus modificaciones	54
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos	57
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones	58
A.5 Enajenación de inversiones reales	59
A.6 Gastos de personal	60
A.7 Compras de bienes corrientes y servicios.....	62
A.8 Transferencias y subvenciones corrientes concedidas	63
A.9 Inversiones reales.....	64
A.10 Pasivos financieros	65
A.11 Deudores presupuestarios.....	65
A.12 Conciliación resultado presupuestario y patrimonial.....	66
A.13 Clasificación funcional del gasto	66
A.14 Análisis de contratación	67
ALEGACIONES	69

Vitoria-Gasteiz, 2012ko irailak 20a
Vitoria-Gasteiz, 20 de setiembre de 2012



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

0. LABURDURAK

BAO	Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.
BFA	Bizkaiko Foru Diputazioa
HILBIZ	Hiri izaerako Lursailen Balio Igoeraren gaineko Zerga
INEM	Enplegu Institutu Nazionala, egungo Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa.
SPKL	30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa.
EFPL	6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
DLO	38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa.
TAOAL	7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituenak.
EEP	Enpleguaren Eskaintza Publikoa
LZ	Lanpostuen Zerrenda.
APKLTB	2/2000 Legegintzako Errege-Dekretua, ekainaren 16koa, Herri Administrazioen Kontratu Legearen Testu Bategina.
UDALHITZ	Tokiko euskal erakundeetan lanerako baldintzak arautzen dituen akordioa.
EHJAN	Euskal Herriko Justizia Auzitegi Gorena





I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (aurrerantzean HKEE) otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osokoak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraiki, Arrigorriagako Udalaren eta bere Toki Erakunde Autonomoen 2010eko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: Honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta diru-laguntzen emakida.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako atal hauek besarkatzen ditu: Udalaren egoeraren balantzea, galera-irabazien kontua eta memoria; baita udalaren eta bere Erakunde Autonomoaren aurrekontuen likidazioa ere.
- Bestelako alderdiak: Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta zuhurtasunari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, Udalaren eta bere erakunde autonomoaren kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi ere, fiskalizazioan zehar sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Arrigorriagako udalerrak 12.358 biztanle zituen 2010eko urtarrilaren 1ean, Estatistika Institutu Nazionalak emandako datuen arabera; bere egiturari, Udala eta Udal Euskaltegia Erakunde Autonomoa barne hartzen ditu eta Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoaren atal da.

II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

KONTRATAZIOA

1. Eraikin publikoak garbitzea xede duen kontratua (A.14 ataleko 4 zenbakidun espediente), 2008an esleitu zen publikitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez, bi urtetarako eta 708.000 euroren zenbatekoan, aurretik lizitatutako prozedura irekia hutsik gelditu eta lizitazio prezioa % 16 goititu ondoren. Kontratazio honek urratu egiten du SPKLren 154. artikulua, lizitazio prezioaren igoerak sustraitik eraldatu baititu kontratuaren hasierako baldintzak.
2. Udaletxea zaharberritu eta altzairuz hornitzeko kontratu bat 4,3 milioi euroren zenbatekoan esleitu zen eta 4,7 milioi euroren egikaritza izan du (A.14 ataleko 10 zenbakidun espediente); obren azken ziurtagiriak obraren egikaritza materialean 830.650 euro barne hartzen ditu, prezio kontrajarriak ezartzetik eskuratutakoak; ez zen hori, ordea, bere garaian onetsi, SPKLren 217. artikulua agintzen duenaren arabera.
3. Kontratu txiki modura izapidetutako erosketak aztertzean 2010ean 84.240, 110.916 eta 172.348 euroan erregistratutako gastuak atzeman dira, hurrenez hurren kontzeptu hauei dagozkienak: Arrigorriagako Hiri Antolaketa Plan Orokorra idazteko laguntza teknikoari; udaletxe berria eraikitzeke obra zuzendaritzari eta Juan XXIII Plaza urbanizatzeko lanei; hauek guztiak, hurrenez hurren, 84.240, 183.280 eta 297.000 euroan esleitu ziren eta publikitate bidezko prozedura negoziatu bidez edo prozedura ireki bidez izapidetu behar ziratekeen.
4. 2009ko martxoaren 20an enpresa berari bi kontratu esleitu zaizkio 34.185 euroan (BEZ barne), diru-bilketari dagokion aplikazioa ezartzeko et prestakuntza eman eta zerga kudeaketa eta diru-bilketa aplikazioa abian jartzeko. Kopuru hori 2010eko ekitaldian kontabilizatu da. Bi eragiketen bolumen ekonomikoa aintzat hartuta, publikitaterik gabeko prozedura negoziatua izapidetu behar zatekeen.

BESTE BATZUK (Ikus A.5)

5. 2008ko uztailaren 18an, Udalaren Osokoak Bentako Erreka Gunearen Antolamendu eta Egikaritza Urbanistikoko Hitzarmena onartu zuen; horren indarrez, merkataritza sozietate bat sortzea aurreikusi da, Udalak berak % 15ean partaidetutakoa eta planeamendua gauzatzea helburu duena; hor sartzen da birzatzitzeko prozesutik eratorritako lursail edo eraikinak eraiki eta saltzea; halaber, kostuko prezioan Udalak SI-1 Sektorean jabetzan dituen lursailak eta hirigintzako aprobetxamendutik eratorritakoak ekartzea aurreikusi da. Planeamendua gauzatu ahal izateko onetsitako hirigintza antolamenduko baliabideak errekurrituak daude hainbat auzitegiren aurrean, baliogabetze epaia jaso dutelarik Arau Subsidiarioei dagokienez (epai honen aurka kasaziozko errekurtsua jarri da Auzitegi Gorenaren aurrean); txosten hau idatzi dugun datan, baina, ez da inongo epai irmorik eman. Alabaina, 2010eko irailaren 22an, alkateak hasiera batean onetsi egin zuen SI-1 Industri Sektorea eta atxikitako Sistema Orokorrak



Birzatzeko Proiektua eta behin-betiko egin zuen 2011ko apirilaren 19an; Jabetza Erregistroan argitaratu eta izen emateko dago.

Txosten hau mamitu dugun datan ez dakigu prozedura judizialek izan duten amaia eta horiek eragin ditzaketen ondorio ekonomiko zein legezkoak zein diren.

Epaitegi honen ustetan, Arrigorriagako Udalak, 1etik 4ra bitarteko paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete du 2010eko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.

Epaitegi honen ustetan, Udal Euskaltegia Erakunde Autonomoak zuzentasunez bete du 2010eko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege araudia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Udalaren 2010eko ekitaldiko aurrekontu likidazioaren sarreraren 4. kapituluak itunpeko zergetan parte-hartzeagatik kitatutako eskubideak (Udalkutxa) barne hartzen ditu; eskubide horiek 6,8 milioi eurorenak dira eta 2010eko ekitaldiaren azken kitapenaren kontura egindako emakidei dagozkio; hor jasotzeko dago 2009ko ekitaldiaren kitapen negatiboa, 1,7 milioi eurorena, eta 2010eko kitapen positiboa, 372.149 eurorena. Bizkaiko Finantzen Lurralde Kontseiluak 2010eko otsailaren 19an erabakitakoari jarraiki, 2009ko kitapen negatiboaren itzulera hileroko egingo da 2011ko urtarriletik 2013ko abendura arte, Udalkutzaren konturako dagozkion emakidekin berdinkatuz. Erabaki honek, halaber, zor saldotik kentzeko balizko likidazio positiboak aplikatzeko aukera ematen du eta horretarako baliatu zen 2011n, 2010eko likidazio positiboa, 372.149 eurorena.

1. Udalak ez du gaurkotutako ondasun eta eskubideen zerrendarik, egoeraren balantzean jasotako ibilgetuaren kopuruak 2010eko abenduaren 31ko ondasun eta eskubideen egiazko egoerarekin bat datozen ondorioztatzen utziko duena, ez eta ibilgetu material eta ez-materiala amortizatzeagatiko gastu modura erregistratutako zenbatekoaren zuzentasuna zein den ezagutzen ere.
2. Hona hemen 2010eko abenduaren 31n Arrigorriagako Udalaren eta bere Erakunde Autonomoaren gastu orokorretarako Diruzaintza Geldikinak, data horretan itxitako Egoera Balantzeak eta Funtz Propioak eragiten dituzten doiketak:



KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	__AURREKONTUZKOA__	____ONDAREZKOA____		
	DIRUZAINZA GELDIKINA	AKTIBOA	PASIBOA	FUNTS PROPIOAK
UDALA				
10.12.31n sortutako eta erregistratu gabeko eskubideak				
A.3 2010 OHZ eta JEZen likidaz. eta erreg. gabeko kobratzekoa.....	121	121	-	121
A.4 EJK hainbat obra edo programatarako dirulag. erag. sarrerak	254	254	-	254
Udalkutxaren likidazioa, 2009 eta 2010eko ekit.	-	-	1.335	(1.335)
Sortu gabeko eskubideak eta 10.12.31n erregistratuak				
A.10 Erabili gabeko zorra.....	(1.589)	(1.589)	(1.589)	-
10.12.31n sortutako eta erregistratu gabeko obligazioak				
A.9. 6. kapituluko gastuak, zorpetu eta erregistratu gabeak	(908)	908	908	-
UDALA GUZTIRA	(2.122)	(306)	654	(960)
UDAL EUSKALTEGIA.				
10.12.31n sortutako eta erregistratu gabeko eskubideak				
HABEren diru-lag., 2010-2011 ikast.	65	65	-	65
UDAL EUSKALTEGIA E.A.GUZTIRA	65	65	-	65

Epaitegi honen iritzira, aurreko 1. eta 2. idatz-zatietan azaleratutako salbuespenak alde batera, Arrigorriagako Udalaren eta bere Erakunde Autonomoaren Kontu Orokorrak alderdi esanguratsu guztietan 2010eko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa, ondarearen eta 2010eko abenduaren 31ko finantza egoeraren isla leiala eta ekitaldian eragiketen emaitzak erakusten dituzte.



III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

III.1. AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- Udalaren 2010eko ekitaldirako Aurrekontu Orokorra behin-betiko 2010eko urtarrilaren 28ko Osokoak onetsi zuen; ordea, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 FAREN 15.2 artikulua behin-betiko onespena urte hasiera baino lehenago egitea aurreikusten du.
- Udalak ez dauka 2010eko ekitaldiari dagokion aurrekontuaren likidazioak barne hartu behar duen konpromiso kredituen egoera, 10/2003 FAREN 47.1 artikulua agintzen duen moduan.
- Alkatetzaren Dekretu bidez, 2010eko otsailaren 10ekoa, onetsitako kredituak txertatzeko espedientean Udalak finantzaketa iturri modura oker erabili ditu “Kapital transferentziak” 7. kapituluko sarreraren konpromisoak, 251.526 eurorenak; horiek 2009ko abenduaren 31n daude aitortuak eta data horretan Diruzaintza Geldikinaren atal dira.
- Udal Euskaltegia Erakundeak 2010eko azken bi hilabetetan gauzatu duen aldi baterako lan kontratupekoen kontratazioan ez da alde aurretik aurrekontuan diru-izendapen egokia eta behar hainbatekoa bazegoela egiaztatu (2010eko Aurrekontu Exekuzioaren Udal Araudiaren 24. artikulua) eta honenbestez, gastu konpromiso horiei aurre egiteko bi aurrekontu-aldaketa izapidetu behar izan dira (kreditu osagarriak), 81.000 euroren zenbatekoan.
- Kontularitzan erregistratzeari dagokionez, hona hemen azaleratu diren hutsak:
 - Udalak “Transferentzia arruntak” gastuen 4. kapituluan 66.573 euro erregistratu ditu (KPIren eguneratzeak barne hartuta), Bilboko Udalari egindako ekarpen bati dagozkionak, lehenagoko urteetan Arrigorriagako biztanleek Bilbon kirol eta irakaskuntza instalazioak erabiltzeko izenpetutako hitzarmen batek eragindakoa. Gastu hauek ordain ekonomikoa eragiten dute eta honenbestez, 2. kapituluko gastu modura erregistratu behar lirateke, “Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak”.
 - Udalak Egoeraren Balantzean 2010eko abenduaren 31n itzultzeko dauden mailegu guztiak erregistratu ditu. Horiek egoki erregistratzeko epe laburreko zor modura kontabilizatu beharko luke urtebete baino areagoko iraungipena ez duen zorraren zatia, 288.153 euro egiten dituenak.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.2. SARRERA FISKALAK

- Udalak ez ditu berandutza interesak kitatzen enpresa baten bitartez kudeatutako premiamendu zorrak kobratzerakoan, trafiko isunetatik eta izapidetutako zatikapen eta gerorapen espedienteetatik eratorritako kobrantzak salbu (BLHren 2/2005 Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 26. art., martxoaren 10ekoa, eta Zergen eta zuzenbide publikoko sarreren kudeaketa, bilketa, ikuskapena eta zehapenari buruzko Ordenantza Fiskal Orokorraren 13. artikulua).

III.3 LANGILERIA

- Udalak, 2007ko uztailaren 12ko Osoko bilkuran (2008ko uztailaren 18ko Osoko bilkuran gaurkotutakoa) talde politikoei dotazio ekonomiko bat ematea onetsi zuen; dotazio honek talde guztientzako bat bera den kopuru finko bat ez ezik, kideen eta betetzen duten karguaren araberrako (alkatea, alkateordea, batzordeetako lehendakariak) osagarri aldakor bat barne hartzen du, egiazko bertaratzei meneratu beharrean.
- 2010eko ekitaldian indarrean zegoen LZk ez du kiroletako begirale postua barne hartzen; Udalean Udal Kiroldegia Erakunde Autonomoa desegin eta integratu ondoren eta funtzionalki mugitzeko prozesua onetsi ondoren, honen egitekoak beste postu batean (begirale soroslea) bitarteko kontratua duen lan kontratupeko langile bati esleitu zaizkio, 2008ko uztailaren 15etik 2011ko abenduaren 31ra arte.
- Udalak 2010eko ekitaldian zehar bi sorosle kontratatu ditu uda sasoirako (3 hilabete); hautaketa, udalak diruz lagundutako ikastaro bat gainditu zutenen artean egin zen; administrari laguntzaile bat ere kontratatu du 3,5 hilabetetarako (lan poltsa sortzeko prozesuak iraun duen denbora), enplegurako udal zerbitzuaren bitartez udalerriko langabetuen artean hautaketa eginez; alabaina, hautaketa horretarako zein irizpide hartu diren aintzat ez dago jasota. Kontratazio horiei publizitate edo hedapen handiagoa ematea komeniko litzateke eta baliatutako hautaketa irizpideak jasota uztea.
- Udalak 2010eko ekitaldian zehar 8 langile kontratatu ditu "Auzolan" enplegu programaren barruan, Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutakoa; ordea, ez dira jasota utzi langileak hautatzeko baliatutako irizpideak, ez egindako balorazioak ere. Aipatutako hautaketa Udalak kontratatutako kanpoko enpresa batek egin du, Udalak berak aurrez hautatutako izangaien artetik.
- 2010eko ekitaldian zehar Udal Euskaltegia Erakunde Autonomoak lanaldi partzialean bitarteko 3 kontratu gauzatu ditu pertsona berarekin lanpostuaren titularra ordezkatzeko (garbiketako langilea), epe ez jarraituetan, guztira 5 hilabete inguru egin dutenak. Komenigarria litzateke laneko aldi baterako behar hauei aurre egiteko lan poltsa bat sortzea.
- Udal Euskaltegia Erakunde Autonomoak ez du euskarazko irakasleen aldi baterako edo bitarteko kontrataziorako lan poltsen kudeaketa zuzena izan dela egiaztatzeko bide emango duen euskarri edo behar hainbateko ebidentziarik uzten.



III.4 DIRU-LAGUNTZAK

- Udalak ez du BAO n emandako diru-laguntzen emakida ebazpenaren laburpenik argitara ematen, kopuruak banaka hartuta 3.000 euroren zenbatekoa gainditzen dutenean, edukia osorik zein tokitan dagoen eskuragarri adieraziaz, DLoren 18.2 artikulua agintzen duenari jarraiki.
- Udalak ez du bermeak aurkezteko eskatzen ordainketa aurreratuetatik modu zuzenean emandako 3 diru-laguntzetan, aurrekontuetan izenez aurreikusitako beste 3tan eta elkarlehia araubidean emandako diru-laguntza lerro batean, 47.000, 191.900 eta 20.772 euroren zenbatekoan, hurrenez hurren. Laguntzen zati bat justifikatu arte ez ordaintzea komeniko litzateke.
- Aztertutako diru-laguntzen justifikazioan, 269.672 eurorena, ez dago jaso behin artekaritzak diru-laguntzen erabilera materialari buruzko txostena jaulki ondoren, alkateak justifikazio eta egiaztapen prozedura amaitzeko ebazpenik egiten duenik, 2009ko abenduaren 28ko Osokoak onetsitako Diru-laguntzen Ordenantzaren 23. artikulua agintzen duen moduan.
- Aztertu diren 4 diru-laguntza zuzenen justifikazioak, 57.000 eurorenak, ez ditu onuradunek eskuratutako diru-sarrerak barne hartzen eta honenbestez, ezin egiaztatu izan dugu gain-finantzaketarik gertatu den jarduerak, diru-laguntza bidez ez ezik, funts propio edo beste diru-laguntza batzuen bidez finantzatu diren kasuetan. Diru-laguntza hauetako baten gastuak, 14.000 eurorenak, kontu justifikagarri sinpletu bidez justifikatu dira eta horretarako, 8.646 euro egin duten proformako fakturak aurkeztu dira.

III.5 KONTRATAZIOA

Udalaren kontratazio administratiboa aztertu dugu eta iritziaren atalean aipatu ditugun ez betetzeak alde batera, honako alderdi hauek bereizi behar ditugu (ikus A.14):

- Espedientea

Udalak bi kontratu izapidetu ditu premiaz, horietako bat aleko prezioetan esleitutakoa eta bestea, 315.321 euroan (1 eta 3 zenbakiko espedienteak); alabaina, ez dago izaera hori eta SPKLren 96. artikulua agindutako epe berezietara egokitu gabe izapidetzea justifikatuko duen arrazoirik.

- Administrazio klausula partikularren pleguak

Bederatzi kontratari dagozkien pleguek (horietako bat aleko prezioen arabera esleitu da eta gainerakoak, 16,7 milioi euroan-1etik 3ra eta 5etik 10era bitarteko espedienteak-), besteak beste, modu orokorrean zehaztutako esleipen irizpideak (balioztatzeko arau zehatzik finkatu gabe, ezta puntuaziorako balio-taula jakinik ere), edota lehiatzaileen eskarmentuan eta/edo kaudimenean oinarritutakoak barne hartzen dituzte, eta ez eskaintzen ezaugarri teknikoetan oinarritutakoa, APKLTBren 15. eta ondoko artikuluek eta SPKLren 65. eta ondoko artikuluek ezartzen duten moduan.

Zazpi kontraturen pleguek, horietako bat aleko prezioen arabera esleitutakoa eta gainerakoak, 6,6 milioi euroan-1etik 3ra eta 7tik 10era bitarteko espedienteak-), balorazioa egiteko formula aritmetikoak baliatzen dituzte; irizpide horiek objektiboak eta



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

publikoak diren arren, atal batzuetan puntuazio bera ematen diete eskaintza ezberdinei eta honenbestez, merkeen diren eskaintzak zigortzen dituzte.

Guztira 1 milioi euroren zenbatekoan esleitutako bi kontraturen pleguetan (2 eta 3 zenbakiko espedienteak), formulak aplikatuta modu automatikoan neurgarriak diren irizpideek, balio judizio baten baitako zenbatespena duten irizpideek baino haztaper txikiagoa dute. Halakoetan arautegiak aditu askeen batzordea osatzeko agintzen du, irizpide horiek formula bidez zenbatetsi daitezkeenak baino lehenago balioztatzeko; ordea, Udalak ez zituen betekizun horiek bete. Berebat, aleko prezioetan esleitutako kontratu administratibo berezian (1 zk. espedienteak), prezioaren irizpidea balio-neurtzeko aurreikusitako formulak irizpide horren balioa balio-judizioa eskatzen duten haiekiko txikiagoa izatea eragin du. Erabilitako formulazioa alda liteke, faktore ekonomikoak nominaletik gertuago dagoen egiazko pisu espezifikoa izan dezan.

Zerbitzu publikoa kudeatzeko bi kontratuei dagozkien pleguak aztertu ditugu (5 eta 6 espedienteak), 10 milioi euroren zenbatekoan esleitutakoak; pleguek behin-betiko bermea aurkeztetik salbuesten dute, salbuestea justifikatu gabe, SPKLren 83.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

- Esleipena

Guztira 4,6 milioi euroren zenbatekoan esleitutako bi kontratutan (3 eta 10 zk. esp.) kontratazio mahaiaren osaera ez zaio SPKLren Xedapen Gehigarri 2.ean adierazitakoari egokitzen, Udalaren idazkaria eta/edo artekaria ez delako bertan izan.

Guztira 16,4 milioi euroren zenbatekoan esleitutako zortzi espedientetan (1, 2 eta 5etik 10erako espedienteak), aurkeztutako eskaintzak balioztatzen dituen txosten teknikoak pleguan irizpide bakoitzari emandako puntuazioak zehazten ditu, baina ez ditu emandako puntuazio horiek justifikatzen. Gainera, horietako batean (2 zenbakiko espedienteak) pleguan zehaztu behar ziratekeen azpi-irizpideak garatu dira.

2009ko ekitaldian gauzatutako kontratu administratibo bereziaren esleipena (1 zenbakiko espedienteak) alkateak onetsi du; ordea, eskuordetutako eskumenen indarrez, Tokiko Gobernu Batzordeari zegokiokeen esleipena onartzea.

Guztira 1,1 milioi euroren zenbatekoan esleitutako bi kontratutan (2 eta 9 zk. espedienteak), behin-betiko bermea SPKLren 87. artikulua agintzen duen epeaz kanpo gordailatu da. Beste kontratu batean (4 zk. espedienteak), 708.000 euroan esleitutakoa, ez dago jaso behin-betiko bermea ezarri denik, pleguetan aurreikusia dagoena eta SPKLren 83. artikuluan araututakoa.

Aurreko urteetan esleitutako lau kontratutan (1etik 4ra bitarteko espedienteak), horietako bat aleko prezioetan eta gainerakoa 1,7 milioi euroan, ez da esleipena BAOn argitaratu, APKLTBren 93.2 artikulua agintzen duena urratuz. Bestetik, guztira 15,6 milioi euroren zenbatekoan esleitutako sei kontratutan (5etik 10era bitarteko espedienteak) argitalpena garaiz kanpo egin da.

Kontratu batean, 708.000 euroren zenbatekoan esleitutakoa (4 zk. espedienteak), esleipen hartzaile den enpresak ez du egiaztatu gizarte eta zerga obligazioak bete dituela



eta ez du kontratatzeke debekurik ez duelako aitortpena egin; horrek SPKLren 135 eta 130.1 artikulua urratzen ditu.

- **Exekuzioa eta harrera**

Obra kontratu batean (7 zk. espedienteak), 637.039 euroren zenbatekoan esleitutakoa, ez da zuinketa egiaztatzeke akta gauzatu (SPKLren 212. art.) eta horrek ematen dio hasiera exekuzio epeari. Beste kontratu batean (8 zk. espedienteak), 287.999 euroan esleitu zena, akta hori atzerapenez gauzatu du (SPKLren 212. artikulua).

Guztira 708.000 euroan esleitutako kontratu batean (4 zk. espedienteak), ez da kontratua agiri administratiboan formalizatu, SPKLren 140. artikulua agintzen duen moduan; berebat, 2010ean 52.789 euroren aldakuntzak onartu dira, agiri administratiboan formalizatu gabe eta bermea egokitu gabe (SPKLren 202 eta 87 artikulua).

Aztertutako lau obra kontratutan, 5,6 milioi euroren zenbatekoan esleitutakoak (7tik 10erako espedienteak), obren exekuzioa betetzeko epea baino haratago luzatu da, epe horretarako luzapenik batere gauzatu gabe (SPKLren 197. art.).

Bi kontratutan, 1 milioi euroren zenbatekoan esleitutakoak (2 eta 3 zk. espedienteak), luzapenak atzerapenez onetsi dira.

2010eko urtean 637.039 euroren zenbatekoan esleitu zen obra kontratu batean (7 zk. espedienteak), ez dago jasota harrera akta, behin obra amaitu ondoren.

- **Erosketa txikien analisia**

Erosketa txiki modura izapidetutako erosketak aztertu ditugu eta ikusi dugu 300.765 mila euroan gauzatutako sei erosketa publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez izapidetu behar ziratekeela, bai kopuruagatik, bai data beretan eta hornitzaile berarekin hornigai berdinak edo antzekoak erosi zirelako (ikus A.14).



IV. FINANTZA ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera ondoko taulan dago zehaztua.

FINANTZA ANALISIA	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	Urtea			Urtea		
	2008(*)	2009(*)	2010	2008	2009	2010
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	4.362	4.313	4.812	352	347	389
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	10.054	8.368	7.534	811	673	610
Ondare sarrerak (5. kap.).....	268	137	34	22	11	3
A. Diru-sarrera arruntak	14.684	12.818	12.380	1.185	1.031	1.002
Langileria gastuak (1. kap.).....	3.763	4.101	4.038	303	330	327
Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak (2. kap.).....	8.722	6.698	5.983	703	539	484
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	1.336	1.399	1.245	108	113	101
B. Funtzionamendu gastuak	13.821	12.198	11.266	1.114	982	912
Aurrezki gordina (A-B)	863	620	1.114	71	49	90
- Finantza gastuak (3. kap.).....	108	88	40	9	7	3
Emaitza arrunta	755	532	1.074	62	42	87
- Maileguren amortizazioa (9. kap.).....	106	163	383	9	13	31
Aurrezki garbia	649	369	691	53	29	56
Inbertsio errealen besterentzea (6. kap.).....	-	-	-	-	-	-
Jasotako kapital diru-laguntzak (7. kap.).....	713	1.898	1.965	58	153	159
- Inbertsio errealak (6. kap.).....	(7.237)	(6.709)	(5.474)	(584)	(540)	(443)
- Emandako kapital diru-laguntzak (7. kap.).....	-	(32)	(33)	-	(3)	(3)
Kapitalezko eragiketaren emaitza.....	(6.524)	(4.843)	(3.542)	(526)	(390)	(287)
Eragiketa ez finantzarioen emaitza (1etik 7rako kap.).....	(5.769)	(4.311)	(2.468)	(464)	(348)	(200)
Diruzaintzako geldikina.....	4.565	1.547	1.112	368	124	90
Zorpetzea 12/31n	4.656	5.752	7.808	376	463	632

(*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Sarrera arruntak: 2010ean % 3 egin dute behera eta % 13, 2009an, aurreko ekitaldietako bakoitzarekiko. Aldakuntza nagusiak honako hauek izan dira:

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak:** Sarrera hauek % 12 egin dute gora 2010ean eta % 1 murriztu dira 2009an. Hona hemen bariazio nagusiak:
 - Zerga zuzenek eragindako diru-sarrerak % 11 igo ziren 2010ean, batik bat Hiri Izaerako Lursailen Balio Igoeraren Zergak (HILBIZ) eragindako diru-sarreraren ondorioz, 2009an 56.020 euro egitetik 2010ean 146.601 euro izatera aldatu baita, 2010ean 2009koak ziren diru-sarrerak kontabilizatu izanaren ondorioz, 52.719 euroren zenbatekoan.
 - Eraikuntza, Instalakuntza eta Obren Zergak eragindako diru-sarrerak ekitaldi bakoitzean onartzen diren eraikuntza proiektu eta lizentziei meneratzen zaizkie eta honenbestez, merkatuko fluktuazioen baitako dira. 2010eko ekitaldian zehar 273.119 euroan gehitu da, udalerrian 75 etxebizitza urbanizatu eta eraikitzetik eratorritakoa.
 - Tasa eta bestelako sarrerek eragindako sarrerak 39.872 euroan murriztu dira 2010ean eta horrek % 2 egiten du.
- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** Transferentzia eta diru-laguntza arruntek eragindako sarrerek % 10 egin zuten behera 2010ean eta % 17, berriz, 2009an. Osagai nagusia Udalkutxa da. 2009ko ekitaldian zehar ekitaldiaren konturako entreez gain, aurreko ekitaldiaren likidazio negatiboa ere erregistratu zen eta horrek 7,2 milioi euro egin du guztira; 2010ean, berriz, ekitaldiko konturako entregak soilik kontabilizatu dira, 6,8 milioi euroren zenbatekoan; Udalak, baina, ez du 2009ko ekitaldiaren likidazio negatiboari dagokion inongo zenbatekorik erregistratu, 1,7 milioi euro egin dituen eta 2011tik aurrera itzuli behar dena. Berebat, 2010ean diru-sarrera horiek behera egin izatea nolabait eragin duen beste egitate bat da Eusko Jaurlaritzak Gizarte Larrialdietarako Laguntzetarako eta Gizarteratze Programetarako emandako laguntzak txikiagoak izan direla; horiek, hurrenez hurren, 149.374 eta 118.837 euroan murriztu dira.
- **Ondare sarrerak:** Ehuneko 75 egin zuten behera 2010ean eta ehuneko 49, berriz, 2009an. 2010eko beheraldia gertatu da diruzaintza likido erabilgarriko izakinak txikiagoak izan direlako eta horrek bankuko interes kontzeptuan sarrera txikiagoak eragin ditu.

Funtzionamendu gastuak: 2010ean % 8 egin dute behera eta % 12, 2009an, aurreko ekitaldietako bakoitzarekiko. Aldakuntza nagusiak honako hauek izan dira:

- **Langile gastuak:** Ehuneko 2 egin dute behera, 8/2010 LEDen ondorioz, izan ere 2010eko ekainaren 1etik aurrera udal langileen ordainsariek behera egitea eragin zuen. Ordainsarien beherapen hau Udalhitzek 2010erako ezarritako % 1,8ko igoerarekin eta langile guztiei % 1eko igoera ezartzearekin (langileen aldeko hainbat epai judizialen indarrez berariazko osagarriari ezarri beharrekoa) berdindu da.
- **Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak:** Ehuneko 11 egin zuten behera 2010ean eta % 23, 2009an. 2010eko ekitaldian zehar udalaren eguneko zentroaren kudeaketa



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

kontzeptuan 2009an egindako gastuak desagertu dira, 99.963 eurorenak izan zirenak, izan ere, BFAk egoitza eta eguneko zentro berria ireki du, berak kudeatzen duena. Gainera, 2009an gastuak izan dira, Udalaren aurkako epai baten ondorioz 205.676 euroren ordainketak egin behar izan direlako.

- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** Gastu hauek % 12 murriztu ziren 2010ean eta % 5 gehitu, berriz, 2009an. Murrizketarik handiena 2010ean 2009arekiko emandako Gizarte Larrialdietarako Laguntzetan gertatu da, Udalak helburu horretarako jasotako diru-sarrerek ere behera egin duten neurrian.

Aurrezki gordina: Magnitude honek % 29 egin du gora aztertutako aldiaren, nahiz 2009an % 28ko beheraldia nozitu zuen aurreko ekitaldiarekiko; 2010ean bere onera etorri zen, % 80ko igoerarekin, gastu arruntek (% 8) sarrera arrunten (% 3) gainetik egin baitzuten behera. 2010ean eskuratutako aurrezki gordinak sarrera arrunten % 9 egiten du.

Aurrezki garbia eta zorpetzea: Aurrezki garbiak finantza zamaren ordainketari aurre egin ondoren erabilgarri geratzen den aurrezki gordinaren atala islatzen du (interesak eta zorraren amortizazioa) eta Udalak baliabide arrunten bidez inbertsioak finantzatzeko duen gaitasuna erakusten du. Udalaren finantza zama % 69 gehitu da, izan ere, 2010ean 2009ko ekitaldiarekiko egin den funtsen erabilera handiagoa izan da eta horrek amortizatutako zenbatekoek gora egitea ekarri du.

Zorpetze mailari dagokionez esan behar da Udalak zorpetutako finantza zorrak gora egin duela aztergai dugun aldiaren, 2010ean 2,4 milioi euroren kreditu kontu bat ireki baitzuen 2010eko inbertsioei aurre egiteko. Ordea, kopuru honetatik 753.065 euro baizik ez dira baliatu 2010eko abenduaren 31n.

Kapitalezko eragiketen emaitza: 2010eko ekitaldian inbertsioei eutsi izana azpimarratu behar da, aurreko ekitaldietako inbertsioen bolumen handiaren aldean. Honek ez du eragotzi magnitude hori negatiboa izatea aztertutako aldiaren, nahiz 2010ean % 46 murriztu den. Ekitaldian zehar egindako inbertsioen artean ondoko hauek azpimarratu behar dira: Udaletxea zaharberritzeko lanak; Lehendakari Agirre parkean ureztatzeko sistema ezartzekoak; eta Mendikosolo eta Mintegitik ureztatze eta bestelako erabileretarako ura banatzeko obrak; horiek, hurrenez hurren, 3 milioi, 207.480 eta 283.461 euroren gastuak eragin dituzte.

Eragiketa ez finantzarioen emaitza: Aztertutako aldiaren saldo negatiboak erakutsi ditu, nahiz urteen buruan murrizten joan den aurrezki gordinak gora egin duelako eta inbertsio errealek 2010ean 2009arekiko behera egin dutelako; horrek ekarri du urteetan zehar kapital eragiketek eragindako emaitza negatiboa urritzea.



Diruzaintza geldikina: Magnitude honek % 76 egin du behera aztergai izan dugun aldian. Epaitegi honek Diruzaintza Geldikinari dagokionez proposatutako doiketak aintzat hartuta, negatiboa izango litzateke 1 milioi euroren zenbatekoan.

Ondorioa: Udal Administrazioek egiten dituzten inbertsioen balizko finantzaketa iturriak honako hauek dira: ekitaldi bakoitzean sortzeko gai diren aurrezki garbia, diruzaintza geldikinak eta diru-laguntza bidez edo zorpetze berri baten bidez eskura dezaten kanpoko finantzaketa.

Arrigorriagako Udalak aztergai izan dugun aldian aurrezki garbi positiboa erakusten du; horrek inbertsio programa apala finantzatzeko bide ematen du, nahiz gogoan izan behar den ez dela kontabilizatu 2009ko ekitaldiaren Udalkutxako likidazio negatiboa, 2011tik aurrera itzuli beharrekoa dena eta Diruzaintza Geldikina negatiboa izatera aldatuko dela HKEEK proposatutako doiketekin; hala ere, erabili gabeko maileguagatik doiketak ez luke eraginik izango, osorik baliatu baita 2011ko ekitaldian zehar. Berebat, Udalak kanpoko zorpetzea baliatu behar izan du egindako inbertsioak finantzatzeko. Nolanahi den ere, 2010eko abenduaren 31n indarreko zorrak ez du kitatutako sarrera arrunten % 75eko muga jotzen, Estatuko Aurrekontu Orokorren abenduaren 22ko 39/2010 Legean ezarritakoa eta egoera honek Udalarari 2011ko ekitaldian zehar kreditu eragiketa berriak hitzartzeko bide ematen dio.

Udalak 2011ko ekitaldiaren aurrekontu likidazioa onartu du; bertan, kitatutako sarrera arruntak aurreko ekitaldian kitatutako diru-sarrerak baino % 1 txikiagoak dira; honen aldean, funtzionamendu gastuek % 8 egin dute behera 2010eko ekitaldiarekiko. Honen guztiaren ondorioz, 2011ko ekitaldiko aurrekontu likidazioaren aurrezki gordinak, % 60ko igoera izan du 2010eko ekitaldikoarekiko. Kapital eragiketen emaitzak negatiboa izaten jarraitzen du (2,3 milioi euro) 2011ko aurrekontuaren likidazioan, nahiz 2010eko aurrekontuen likidaziokoa baino % 34 txikiagoa; honen arrazoia, nagusiki, ekitaldian exekutututako egiazko inbertsioen murrizketa izan da (% 43); horiek aurrezki garbiarekin ez ezik, 2011n txertatutako Diruzaintza Geldikinarekin ere finantzatzea aurreikusi da.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

V.1 UDALA

2010-EKO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUBIDE.	KOBR.		%
		HASIER.	ALDAK.	B.-BETIK.	KITAT.	KOBR.	GABEA	EXEK.
1.- Zerga zuzenak	A.3	2.414	-	2.414	2.657	2.595	62	110
2.- Zeharkako zergak	A.3	2.250	-	2.250	444	426	18	20
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	A.3	1.602	-	1.602	1.711	1.708	3	107
4.- Transferentzia arruntak	A.4	7.874	84	7.958	7.534	7.496	38	95
5.- Ondare sarrerak		37	-	37	34	32	2	92
6.- Inbertsio errealen besterentzea	A.5	-	-	-	-	-	-	-
7.- Kapitalezko transferentziak	A.4	-	2.047	2.047	1.965	1.880	85	96
8.- Finantza aktiboak		36	1.516	1.552	-	-	-	(*) -
9.- Finantza pasiboak	A.10	2.439	-	2.439	2.439	850	1.589	100
SARRERAK GUZTIRA		16.652	3.647	20.299	16.784	14.987	1.797	(*)89

(*) Exekuzioaren % kalkulaterakoan Diruzaintza Geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

Euroak milakotan

GASTUA	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG.	ORDAIN.		%
		HASIER.	ALDAK.	B.-BETIK.	AITORT.	ORDAINK.	GABE	EXEK.
1.- Langileria-gastuak	A.6	4.257	(99)	4.158	4.038	3.965	73	97
2.- Ondasun arrunten erosk. eta zerb...	A.7	6.836	236	7.072	5.983	5.302	681	85
3.- Finantza gastuak	A.10	95	-	95	40	40	-	42
4.- Transferentzia arruntak	A.8	1.444	32	1.476	1.245	1.163	82	84
6.- Inbertsio errealak	A.9	3.758	3.320	7.078	5.474	5.389	85	77
7.- Kapitalezko transferentziak	A.8	33	-	33	33	33	-	100
8.- Finantza aktiboak		36	-	36	-	-	-	-
9.- Finantza pasiboak	A.10	193	158	351	383	383	-	109
GASTUAK GUZTIRA		16.652	3.647	20.299	17.196	16.275	921	85
SARRERAK - GASTUAK					(412)			



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

	AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA				Euroak milakotan	
	ERANSK.	HASIER.		BALIOG.	KOB.R./ ORDAIN.	AZKEN ZORRA
		ZORRA	ZORRA			
Zordunak	A.11	1.009	(4)	859	146	
Hartzekodunak		1.442	-	(1.442)	-	
AURREKONTU ITXIEN EMAITZA				(4)		

AURREKONTUAREN EMAITZA		Euroak milakotan
Kitatutako eskubideak.....		16.784
Aitortutako obligazioak.....		17.196
INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETA AURREKONTUZKOEN EMAITZA		(412)
AURREKO EKITALD. KITATUTAKO AURREKONTU ERAGIKETEN EMAITZA		(4)
EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA		(416)
Finantzaketa desbideratzeak		(219)
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak.....		876
DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA		241

DIRUZAINZA GELDIKINA		Euroak milakotan
Diruzaintza geldikina 2010.1.1ean		1.547
Aurrekontuaren emaitza		(416)
Huts egindakoen hornidurarako dotaz. aldaketak		(19)
Sarrerren itzulketeng. eta beste hartzekod. bariaz.		-
DIRUZAINZA GELDIKINA 2010.12.31-N		1.112
Diruzaintza		429
Aurrekontuko zordunak (A.11)		1.943
Aurrekontuz kanpoko zordunak.....		3
Aurrekontuko hartzekodunak		(921)
Sarrerren itzulketeng. hartzekod.		-
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak		(261)
Aplikatzeke dauden sarrerak		(2)
Kaudimen-gabeziarako hornidurak (A.11)		(79)
DIRUZAINZA GELDIKINA 2010.12.31-N		1.112
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza Geldikina.....		(584)
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA GELDIKINA		528
2010.12.31-N ZORPETZEA (A.10)		7.808



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEA 2010 ETA 2009-KO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

AKTIBOA	ERANSKINA	2010	2009	PASIBOA	ERANSKINA	2010	2009
IBILGETUA		48.219	43.777	FUNTS PROPIOAK		41.523	39.573
Erabilera orokorrekoa.....		25.631	24.541	Ondarea		186	186
Ibilgetu ezmateriala.....		209	41	Atxiki eta lagatako ondarea		-	-
Ibilgetu materiala.....		22.379	19.195	Aurreko ekitaldietako emaitza.....		39.387	37.624
Ibilgetu finantzarioa.....		-	-	Galera-irabaziak.....		1.950	1.763
ZORDUNAK		1.864	949	HARTZEKODUNAK EPE LUZERA A.10		7.808	5.752
Indarreko ekitaldiaren aurrek.A.11		1.797	900	Beste zor batzuk		7.795	5.736
Ekitaldi itxien aurrek.....A.11		146	109	Sekt. publ. entitateekiko zorrak		13	16
Kaudimengabeziatarako zuzkiduraA.11		(79)	(60)	HARTZEKODUNAK EPE LABURRERA		1.184	1.743
				Indarreko ekitaldiaren aurrek.		921	1.442
FINANTZA KONTUAK		432	2.342	Ekitaldi itxien aurrek.....		-	-
Aldi bateko finantza inbertsioak		3	2	Sarrerren itzulketeng. hartzekod.		-	-
Diruzaintza		429	2.340	Entitate publiko hartzekodunak		194	225
				Jasotako bermeak eta gordailuak		67	74
				Aplikatzeko dauden sarrerak.....		2	2
AKTIBOA GUZTIRA		50.515	47.068	PASIBOA GUZTIRA		50.515	47.068

2010 ETA 2009-KO EKITALDIKO GALERA-IRABAZIEN KONTUAK

Euroak milakotan

GASTUAK	ERANSKINA	2010	2009	SARRERAK	ERANSKINA	2010	2009
Langileria-gastuak.....		4.046	4.119	Negozio zifraren zenbateko garbia...		1.482	1.631
Ibilgetuaren amortizazioa.....		1.033	834	Zerga zuzenak	A.3	2.657	2.392
Kaudimengab. zuzkid. aldak.		19	-	Zeharkako zergak	A.3	444	170
Kanpoko zerbitzuak.....		5.975	6.680	Jasotako transf. eta dirul.....	A.4	9.499	10.609
Emand. transf. eta dirulag.....	A.8	1.278	1.431	Kudeaketa arrunt. bestel. sarrerak....		254	148
USTIAPENAREN MOZKINA		1.985	1.886	EMAITZA FINANTZARIO NEG.		31	-
FINANTZA EMAITZA POSITIBOAK		-	23	AURREKO EKITALDIETAKO GALERAK		4	146
EKITALDIKO MOZKINA		1.950	1.763				



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.2 UDAL EUSKALTEGIA ERAKUNDE AUTONOMOA

2010-EKO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	AURREKONTUA				ESKUBIDE. KITAT.	KOB.R. KOB.R.	GABEA	KOB.R. GABEA	%
	ERANSK.	HASIER.	ALDAK.	B.-BETIK.					
3.- Tasak eta bestelako sarrerak		50	-	50	49	48	1	98	
4.- Transferentzia arruntak.....	A.4	366	-	366	289	289	-	79	
5.- Ondare sarrerak.....		2	-	2	-	-	-	-	
8.- Finantza aktiboak		12	81	93	-	-	-	-	
SARRERAK GUZTIRA		430	81	511	338	337	1	79	

Euroak milakotan

GASTUA	AURREKONTUA				OBLIG. AITORT.	ORDAIN. ORDAINK.	GABEA	%
	ERANSK.	HASIER.	ALDAK.	B.-BETIK.				
1.- Langileria-gastuak.....	A.6	389	81	470	466	456	10	99
2.- Ondasun arrunten erosk. eta zerb...		28	-	28	21	21	-	75
6.- Inbertsio errealak		1	-	1	-	-	-	-
8.- Finantza aktiboak		12	-	12	-	-	-	-
GASTUAK GUZTIRA		430	81	511	487	477	10	95
SARRERAK - GASTUAK					(149)			

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	ERANSK.	HASIER.	ZORRA	KOB.R./ BALIOG.	AZKEN ORDAIN. ZORRA
Hartzekodunak	9	-	(9)	-	
AURREKONTU ITXIEN EMAITZA					-

AURREKONTUAREN EMAITZA

Euroak milakotan

Kitatutako eskubideak.....	338
Aitortutako obligazioak.....	487
INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETA AURREKONTUZKOEN EMAITZA	(149)
AURREKO EKITALD. KITATUTAKO AURREKONTU ERAGIKETEN EMAITZA	-
EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA	(149)
Finantzaketa desbideratzeak	-
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak.....	81
DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA	(68)



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

DIRUZAINZA GELDIKINA		Euroak milakotan
Diruzaintza geldikina 2010.1.1ean		208
Aurrekontuaren emaitza		(149)
Huts egindakoen hornidurarako dotaz. aldaketak		-
Sarrerren itzulketeng. eta beste hartzekod. bariaz.		-
DIRUZAINZA GELDIKINA 2010.12.31-N		59
Diruzaintza		90
Aurrekontuko zordunak		1
Aurrekontuz kanpoko zordunak		-
Aurrekontuzko hartzekodunak		(10)
Sarrerren itzulketeng. hartzekod.		-
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak		(22)
Aplikatzeke dauden sarrerak		-
Kaudimengabeziatarako zuzkidura		-
DIRUZAINZA GELDIKINA 2010.12.31-N		59
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza Geldikina		-
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA GELDIKINA		59

EGOERAREN BALANTZEA 2010 ETA 2009-KO ABENDUAREN 31-N				Euroak milakotan			
AKTIBOA	ERANSKINA	2010 URTEA	09 URTEA	PASIBOA	ERANSKINA	2010 URTEA	09 URTEA
IBILGETUA		22	33	FUNTS PROPIOAK		81	241
Ibilgetu materiala		22	33	Ondarea		67	67
				Aurreko ekitaldietako emaitza		174	194
				Galera-irabaziak		(160)	(20)
ZORDUNAK		1	3	HARTZEKODUNAK EPE LABURRERA		32	24
Indarreko ekitaldiaren aurrek. .		1	-	Indarreko ekitaldiaren aurrek.		10	-
Ekitaldi itxien aurrek.		-	3	Ekitaldi itxien aurrek.		-	9
Kaudimengabez. zuzkid.		-	-	Entitate publiko hartzekodunak ..		22	15
FINANTZA KONTUAK		90	229				
Diruzaintza		90	229				
AKTIBOA GUZTIRA		113	265	PASIBOA GUZTIRA		113	265

